# Pausaran

Artzibarko Udalaren buletina
Boletín Municipal del Valle de Arce

2. Buletina. 2024ko abendua
2º Boletín. Diciembre 2024



Eskeleto zubia, berriro zutik 4

Puente esqueleto, de nuevo en pie 5

## Berdintasun teknikariari elkarrizketa

Berdintasun Zerbitzu berriak berdintasuna sustatzeko hainbat ekintza jarriko ditu abian 2025ean.

8-12

## Entrevista a la técnica de Igualdad

El nuevo Servicio de Igualdad pondrá en marcha varias acciones en 2025 para promover la igualdad.

## Neguko solstizioaren inguruko ohiturak

*Bazterreko* edo *txunbil* deituriko enborra eta erregealdia, Artzibarko neguko ohitura batzuk.

15

## Costumbres en torno al solsticio de invierno

El tronco *bazterreko* o *txunbil* y el reinado, algunas de las costumbres del Valle de Arce en la época invernal.

## Urizar, ondare kulturalari balioa emanez

Elkarte berriaren helburua gure historiako ondarea berreskuratzea da, kultura material eta sinbolikoko objektuen bidez.

17-18

## Urizar, poniendo en valor el patrimonio cultural

A través de objetos de la cultura material y simbólica el objetivo de la nueva asociación es recuperar el patrimonio de nuestra historia.



Argazkia: Nafarroako Gobernua | Foto: Gobierno de Navarra

# Artziko Jauregia zaharberritu dute, tokiko garapena eta turismoa sustatzeko

Nafarroako Gobernuak egindako birgaitzeari esker, duintasuna itzuli ahal izan zaio XVI. mendeko eraikin historiko honi, hondatuta baitzegoen. Esku-hartzearen ardatza higiezina sendotzea eta herritarrentzako erabilera berriak ematea izan da, irisgarritasun unibertsalari arreta berezia eskainiz.

Iparraldeko eta mendebaldeko hegalak zaharberritu dituzte eta egitura historikoa itzuli diote eraikinari. Birgaitutako espazioen artean, Erdi Aroko egurrezko galeria eta plaza nabarmentzen dira, inguruko sastraken garbiketaren ondoren berreskuratuak. Proiektuak barne hartzen ditu jauregiaren barruan kafetegi bat, bertako produktuen denda, proiekzio gela, jatetxea eta erabilera anitzeko hainbat areto kultur jarduera eta ekitaldietarako, baita patioan kanpoko terraza bat ere.

**Ermitauaren Etxea: informazio turistikorako gune berria**

Jauregiaz gain Ermitauaren Etxea ere birgaitu da bertan informazio turistikorako gune bat jartzeko, ibarraren, Artziko Jauregiaren eta inguruko mendi-ibilbideen berri emateko. Eraikinean bihotz-biriketako bizkortze-ekipo bat dago baita 24 orduz irekita dagoen bainu publiko bat, pertsona ostomizatuentzat egokitua.

## GOGORA DEZAGUN...

Joan den urriaren 15ean, Alicia Echeverría Gobernuaren ordezkariak, Oscar Chivite Lurralde Kohesiorako kontseilariak eta bere taldeko kide batzuek bisitatu gintuzten, Jesús Mari Rodriguez Toki Administrazioko zuzendari nagusia buru zutela, Artziko Jauregiaren berreraikuntzaren aurkezpenean. Aipamen berezia merezi du Rubén Goñi Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusi ohia ere bertan zela, kontuan hartuta bera izan zela Artziko Jauregiko obren sustatzaile nagusia.

Bisitan, Jauregia berreraikitzeko eta balioan jartzeko estrategia azaldu ziguten; Comal enpresak obra egin du eta egindako lana helarazi digu une oro, urte hauetan guztietan bere hurbiltasuna sentiaraziz.

Hala ere, komeni da gogoratzea obra hau, gutxienez 2006. urtean hasi zela, jauregia birgaitzeko lehen proiektua egin zenean, Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioa likidatu aurretik (2002-2014). 2015-2019 legegintzaldian, Artzibarko Udalak komunikazio arina izan zuen Nafarroako Gobernuarekin, haranarekin zuen zorra gogorarazteko.

Garai hartako lehendakari Uxue Barcosek bideratu zuen gure eskaria, eta, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko sailburu Isabel Elizalderen bitartez, bere taldearekin eta Gobernuko beste departamentu batzuekin dinamizatu zuen Nagoreko Mahaiaren sorrera. Lan mahai horren helburua Itoizko urtegiaren ondorioz lurraldean egin gabe zeuden proiektuak lehenestea izan zen, Itoizko urtegiaren Garapen Integralerako Planaren bidez.

Urte luzez aritu dira lanean garai bakoitzeko Udalak, Nagoreko Kontzejuarekin eta bailarako bizilagun batzuekin, jauregiaren birgaitzea bultzatzeko eta balioan jartzeko, ez bakarrik turistak hartzeko eta gastronomia berreskuratzeko gune gisa, baizik eta ibarreko leku enblematiko gisa, non bizilagun guztiok eroso sentitzen garen.

Aurreko legealdian, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren eta haren taldearen eskutik, proiektua gauzatzeko funtsak bideratzea eta jasotzea lortu zen, bai Artziko Jauregia zein Ermitauaren Etxea eraberritzeko. Aurreko legealdian ere martxan jarri ziren Nagore edo Angordoi eta Artziko bainu eremuak, eta horiek zaintzeko eta gozatzeko beharrezko langileez hornitu ziren. Lan handia egin zen, lurraldearekiko gertutasunaren filosofiari lotuta.

Iaz legealdia aldatzearekin batera, leku hori kudeatzen zuen taldea eta zuzendaritza nagusia ere aldatu ziren. Lehen ondorio gisa, egiteke dauden lanak mantsoago doazela uste dugu. Lurraldetik, aurreko legealdian sortu zen gertutasuna eta bultzada faltan botatzen ditugu, izan ere aitortuak eta babestuak sentitu ginen. Nolabait, lortu behar dugu Artzibarko biztanle guztiak bultzatzen gaituen amets horren haria ez galtzea, gure ibarra Nafarroako gainerako lurraldeei egiten dien ekarpenagatik aitortua izan dadin lortzeko.

**Javier Díez Huguet**
Artzibarko alkatea



# Rehabilitado el Palacio de Arce para fomentar el desarrollo local y turístico

Argazkia: Nafarroako Gobernua | Foto: Gobierno de Navarra

La rehabilitación llevada a cabo por el Gobierno de Navarra ha permitido devolver la dignidad a este edificio histórico del siglo XVI, que se encontraba en estado de ruina. La intervención se ha centrado en la consolidación del inmueble y en dotarlo de nuevos usos para la ciudadanía, con especial atención a la accesibilidad universal.

Las obras han incluido la restauración de las alas norte y oeste, devolviendo al edificio su estructura histórica. Entre los espacios rehabilitados destacan la galería medieval de madera y la plaza medieval, recuperadas tras el desbroce de la zona. El palacio proyecta en su interior una cafetería, tienda de productos locales, sala de proyecciones, restaurante y diversas salas de usos múltiples para actividades culturales y eventos, así como una terraza exterior en el patio.

**La Casa del Ermitaño: nuevo punto de información turística**

Otro hito importante de la intervención es la Casa del Ermitaño, el edificio auxiliar que ha sido rehabilitado para albergar un punto de información turística sobre el valle, el Palacio de Arce y las rutas de senderismo cercanas. El inmueble cuenta, además, con un equipo de reanimación cardiopulmonar y con un baño público abierto 24 horas, adaptado para personas ostomizadas.

## CONVIENE RECORDAR...

El pasado 15 de octubre nos visitó la delegada del Gobierno Alicia Echeverría, el consejero de Cohesión Territorial Óscar Chivite y parte de su equipo, liderado por el director general de Administración Local Jesús Mari Rodríguez en la presentación de la reconstrucción del Palacio de Arce. Mención especial merece la presencia del antiguo director general de Proyectos Estratégicos, Rubén Goñi, alma mater de la ejecución de las obras del Palacio de Arce.

En la visita nos explicaron la estrategia en la reconstrucción y puesta en valor del Palacio, una obra ejecutada por la empresa Comal, la cual nos ha trasladado en todo momento el trabajo realizado y hemos sentido su cercanía todos estos años.

Sin embargo, conviene recordar que esta obra arranca, al menos, en el año 2006, cuando se realiza el primer proyecto para la rehabilitación del palacio, antes de la liquidación de la Fundación Itoiz-Canal de Navarra (2002-2014). En la legislatura 2015-2019 el Ayuntamiento del Valle de Arce mantuvo comunicación fluida con el Gobierno de Navarra para recordar la deuda pendiente con el valle.

La entonces presidenta Uxue Barcos canalizó nuestra demanda y a través de la consejera de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local Isabel Elizalde, dinamizó con su equipo y con otros departamentos del Gobierno la creación de la Mesa de Nagore. El objetivo de esta mesa de trabajo fue priorizar los proyectos pendientes a realizar en el territorio como consecuencia del embalse de Itoiz, a través del Plan de Desarrollo Integral del Embalse de Itoiz.

Han sido muchos años de trabajo por parte de los Ayuntamientos del momento junto con el Concejo de Nagore y otros/as vecinos/as del valle para impulsar y poner en valor la rehabilitación del palacio, no solo como un espacio para acogida de turistas y restauración gastronómica sino como lugar emblemático del valle en el que todos/as los/as vecinos/as nos sentimos cómodos/as.

Fue en la pasada legislatura, de la mano de la dirección general de Proyectos Estratégicos y su equipo, cuando consiguieron encaminar y conseguir los fondos para la ejecución del proyecto tanto del Palacio de Arce como de la Casa del Ermitaño. También en la legislatura pasada se puso en marcha las zonas de baño de Nagore o Angordoi y Arce dotándolas del personal necesario para su cuidado y disfrute. Fue un trabajo importante con la filosofía de la cercanía al territorio.

Con el cambio de legislatura el año pasado, cambió también el equipo y la dirección general que gestionaba este lugar. Como primera consecuencia, hemos sentido el frenazo en el impulso de las actuaciones pendientes. Desde el territorio echamos en falta la cercanía y el empuje que se gestó en la pasada legislatura en la que nos sentimos reconocidos/as y respaldados/as. De alguna manera, debemos conseguir que no se pierda el hilo de este sueño que a toda la población del Valle de Arce nos empuja para conseguir que este valle sea reconocido por lo que aporta al resto de Navarra.

**Javier Díez Huguet**
Alcalde del Valle de Arce



# 2025ean eskeleto zubia berreskuratzeko lanak hasiko dira

Argazkia | Foto: Juan Mari Martinez Txoperena

*Erromatarren zubia edo eskeleto zubia izenez ezaguna, Artzibarko Udalak legealdi honetan duen lehentasunetako bat zubia berreraikitzeko funtsak lortzea da.*

Urrobi ibaiaren gaineko zubia zutik egon zen 2000ko hamarkadaren hasieran erori zen arte. Erabiltzen ez zenez eta luzaroan mantentze-lanik egin ez denez, arkuaren erdialdea kolapsatu egin zen, eta, gaur egun, bi ertzetako abiaguneak inguruko landarediaz estaliak daude.

Datorren urtean hasiko dira Urrobi ibaiaren gaineko zubia berreskuratzeko lanak, eta lau hilabete inguru irautea aurreikusi da. Jatorrizko zubiaren antzeko materialekin berreraikitzea proposatzen da, geratzen diren aztarnen gainean falta diren zatiak gehituz, Urdirozkoaren mota eta estilo bereko zubi gehienek duten itxura emanez.

Horrez gain, Urrobi ibaiaren bi ertzak lotzen dituen zubia berreskuratzea Hiriberri eta Urdirotz lotzen dituen bidezidorraren egokitzapenaren parte da, Artzibarko ibarretik igarotzen diren ibilbideak lotuz. Era berean, bere garaian meatzaritzak bailaran izan zuen garrantzia balioan jarriko da, izan ere, Urrobiko parajean zegoen mineral fabrikaren azpiegituraren parte izango zen ziurrenik.

**Zubiaren jatorria**

Ez dago eraikuntzari buruzko berri dokumentaturik, baina bi hipotesi daude: Urrobin minerala ustiatzeko Girardik sortutako azpiegituraren barruan funtsezko elementu gisa eraiki izana 1340an; edo 1448tik aurrera eraiki izana, erregeak Urrobiko parajean inguruko herriei emandako lurrak lantzera joaten ziren Urdirotz eta Saraguetako bizilagunei bidea errazteko.

Nahiz eta "zubi erromatar" bezala ezagutzen den, bere jatorri erromatarra baztertu da, bai bere egituragatik zein bere estutasunagatik. Bere bizitzan zehar, eskeleto zubiak ezin konta ahala esku-hartze eta aldaketa izan ditu. Izan ere, ez da berreraikitzen den lehen aldia, Gerardo Huarte Ilárrazen liburuan aipatu bezala (***"Cruce de caminos. Nagore (Arce)"***:

*"1784ko maiatzaren 8an, Nagoren, Martín de Elizalde -Urdirozko bizilaguna-, Juan de Garde -Arrietako bizilaguna- eta Juan Sanz -Saraguetako bizilaguna- bildu ziren Joaquín de Najurieta Agoizko notarioaren aurrean eskritura bat emateko. Haren bidez, beren izenean eta beren herrien izenean, Urrobiko zubia berreraikitzeko konpromisoa hartu zuten, eraitsita baitzegoen. Pertsona horiek beren gain hartutako betebeharrak Imizkotz herriak ere onartu zituen, nahiz eta bere ordezkaria, Martín de Inda, ez zen eskritura sinatzeko ekitaldian egon. Lau herrietako ordezkariek Pedro Lorda hargin maisuari, Saraguetako bizilaguna, zubia berreraikitzea eskatu zioten, "Eskeletoa" izenarekin ere ezaguna, eta urte eta egun bateko epean eta 110 pesoko prezioan (880 erreal, 220 pezetaren baliokide) adostu zuten tratua, "harri eta zementu onez". Lau herriek hargin-maisuaren esku jarri behar zuten "30 zaldi eta beste 30 gizon, harria garraiatu eta obran bertan jartzeko".*



# En 2025 comenzarán las obras para recuperar el puente esqueleto

Argazkia | Foto: Jose Etxegoien Juanarena

*Conocido popularmente como puente romano o puente esqueleto, una de las prioridades del Ayuntamiento del Valle de Arce en la presente legislatura ha sido conseguir fondos para su reconstrucción.*

El puente sobre el río Urrobi estuvo en pie hasta su reciente ruina acaecida alrededor del comienzo de los años 2000. El desuso y la falta de mantenimiento a la que se vio sometido durante mucho tiempo provocaron que la parte central del arco colapsara y a día de hoy quedan los arranques de ambas orillas dominados por la exuberante vegetación del entorno.

El próximo año comenzarán las obras para recuperar el puente sobre el río Urrobi y se estima que la obra dure alrededor de cuatro meses. Se propone reconstruir el puente con materiales similares a la fábrica original y añadiendo las partes que faltan en base, por un lado, a los restos que quedan y, por otro, por analogía a la forma que tienen la mayoría de los puentes del mismo tipo y estilo que el de Urdiroz.

Además, la recuperación del puente que comunica las dos orillas del río Urrobi forma parte del acondicionamiento del sendero que une Villanueva de Arce/Hiriberri y Urdiroz, conectando las rutas que transcurren por el valle de Arce. También pone en valor la importancia que tuvo en su día la industria minera en el valle ya que éste seguramente formaba parte de la infraestructura de la arruinada fábrica de mineral situada en el paraje de Urrobi.

**Origen del puente**

No se dispone de noticias documentales sobre su construcción pero se manejan dos hipótesis: que se construyera en 1340 como elemento fundamental dentro de la infraestructura creada por Girardi para la explotación del mineral en Urrobi; o que se construyera a partir de 1448 para facilitar el paso de las gentes de Urdiroz y Saragüeta a las tierras que trabajaban en el paraje de Urrobi, tras su donación por el rey a los pueblos limítrofes.

Aunque popularmente se conoce como 'puente romano', se descarta su origen romano tanto por la ejecución de su fábrica como por la estrechez de su vía. A lo largo de su vida el puente esqueleto ha sufrido innumerables intervenciones y modificaciones. De hecho, no es la primera vez que se reconstruye, tal y como aparece citado en el libro de Gerardo Huarte Ilárraz, ***"Cruce de caminos. Nagore (Arce)"***:

*"El 8 de mayo de 1784 se reunieron en Nagore Martín de Elizalde -vecino de Urdiroz-, Juan de Garde -vecino de Arrieta- y Juan Sanz -vecino de Saragüeta- para otorgar ante el notario de Aoiz Joaquín de Najurieta una escritura por la que se comprometieron en su nombre y en el de sus respectivos pueblos a reconstruir el puente de Urrobi, que se había derrumbado. Las obligaciones asumidas por estas personas estaban aceptadas también por Imízcoz, aunque su representante -Martín de Inda- no estuvo presente en el acto de la firma de la escritura. Los representantes de los cuatro pueblos se obligaron a que el maestro cantero Pedro Lorda, vecino de Saragüeta, reconstruyera el puente, conocido también con el nombre del "Esqueleto" y arreglara la traza en el plazo de un año y un día y por el precio de 110 pesos (880 reales, equivalentes a 220 pesetas), "con buena piedra y buen mortero". Los cuatro pueblos implicados se obligaban a poner a disposición del maestro cantero "30 caballos y otros 30 hombres, que acarrearán la piedra y la colocarán a pie de obra".*

**IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK | FICHA DEL SENDERO:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Iraupena: 2 ordu | Desnibela: 200 m | Distantzia: 7,2 km | Ibilbide mota: lineala |
| Duración: 2 horas | Desnivel: 200m | Distancia: 7,2km | Tipo de Recorrido: lineal |



Argazkia | Foto: Jose Etxegoien Juanarena

# Hiriberri eta Urdirotz lotzen zituen bide zaharra egokituko da

2025ean hasiko dira Hiriberri eta Urdirotz lotzen dituen 7,2 km-ko bidexka zaharra berreskuratzeko lanak. Bidexkaren egokitzapena lurraldea egituratzeko tresna gisa hartu da, antzinako bidexken balioa azpimarratuz, eta, paisaia aldetik zein kulturalki, balio handiko ibilbide berri bat eskainiz herritarrei.

Aipatzekoa da ibarraren iparraldeko bi isurialdeak eta herriak lotzen dituen antzinako bide bat berreskuratu nahi dela, eta, gainera, Urrobi ibaiaren gaineko eskeleto zubi zaharra berreskuratu nahi dela, izan ere ibarrean dagoen bakarra da eta duela bi hamarkada erori zen.

Ibilbideak duen balio paisajistiko eta kulturala eta haren edertasuna kontuan hartuta, helburuetako bat da lurraldea egituratzea, antzinako bidexkak berreskuratuz, eta dauden baliabide historiko-kulturalak zein naturalak indartzea. Horrez gain, ibarrean eskaintza turistiko orekatu bat egituratzea da asmoa, espazio interesgarriak eratuz, eta, aldi berean, aberastasuna sortuz.

# Acondicionamiento del antiguo sendero que une Villanueva y Urdiroz

En 2025 comenzarán las actuaciones para recuperar el sendero antiguo de 7,2 km que une los pueblos de Villanueva y Urdiroz. El acondicionamiento del sendero se enfoca como instrumento de articulación del territorio, poniendo en valor los senderos antiguos y ofertando a la población un nuevo recorrido con alto valor paisajístico y cultural.

Cabe destacar que se trata de recuperar un antiguo camino que une las dos vertientes y pueblos del norte del valle, recuperando, además, el antiguo puente esqueleto sobre el río Urrobi, único existente en el valle y desaparecido hace dos décadas.

Partiendo de una ruta de alto valor paisajístico y cultural y de gran belleza, uno de los objetivos es vertebrar el territorio mediante la recuperación de senderos antiguos y potencializar los recursos existentes tanto histórico-culturales como naturales. Además, se trata de estructurar una oferta turística equilibrada dentro del valle, creando espacios de interés y al mismo tiempo generando riqueza.

# Euroveloko konponketak

Datorren urterako aurreikusitako beste jarduketa bat Eurovelo bizikleta bidearen egokitzapena da, ibarretik igarotzen den zatian. 2022an obrak amaitu ondoren, zenbait diseinu-arazo eta kalte antzeman dira, hainbat arrazoi direla kausa, eta konponduko dira. Azpiegituran identifikatu diren hainbat arazok zerikusia dute bidearen drainatzearekin, azienda ez pasatzeko jarritako hesi kanadarrekin edo bideko plataforma asentatzeko arazoekin. Halaber, seinaleak hobetuko dira. Hobekuntza eta egokitzapen horri esker, bizikletentzako bidea egoera egokian erabili ahal izango da.

# Reparación de la Eurovelo

Otra de las actuaciones previstas para el año que viene es el acondicionamiento de la vía ciclable Eurovelo a su paso por el valle. Tras la finalización de las obras en 2022, se han identificado problemas de diseño y desperfectos, que van a ser arreglados. Tienen que ver con el drenaje de la vía, con la disuasión al ganado por medio de barreras canadienses o con el asentamiento de la plataforma de la vía. Asimismo, se va a mejorar la señalética. Gracias a esta mejora y acondicionamiento se podrá disfrutar de la vía ciclable en su correcto estado.

# Abian da Artzibarko Udal Plan Orokorraren lanketa

Nagoren Artzibarko Udal Plan Orokorraren jendaurreko aurkezpena egin ondoren, herrietako saioak hasiko dira UPO lantzeko.

Artzibarko Udal Plan Orokorrak udalerriko lurralde osoa antolatzen du, lurzorua epe luzera erabiltzeko eredu baten bidez. UPO bat egiteko 4 eta 6 urte arteko epea behar da, eta une honetan informazio eta analisi fasean dago, gure herrietan eta lurraldean egon daitezkeen arazoak identifikatzeko.

Horretarako, plana egiten laguntzeko gonbita egin zaie herritarrei, proposamen eta iradokizunak egin ditzaten. Garrantzi handikoa da elkarlana, herritarren iritzia kontuan har dadin lana idazterakoan. Herriz herri egingo diren saioez gain, UPOren inguruko proposamen eta iradokizunak bidal daitezke posta elektroniko honetara: ***pgmvalledearce@gmail.com.*** Artzibarko Udalaren webgunean UPOri buruzko dokumentazio guztia eskuragarri egongo da.

# En marcha la elaboración del Plan General Municipal

Después de realizarse la presentación pública del Plan General Municipal del Valle de Arce en Nagore, comenzarán las sesiones en los pueblos para la elaboración del PGM.

El Plan General Municipal del Valle de Arce ordena la totalidad del territorio municipal mediante un modelo de utilización del suelo a largo plazo. La realización de un PGM conlleva un tiempo, entre 4 y 6 años, y en este momento se encuentra en la fase de información y análisis, identificando los problemas que puede haber en nuestros pueblos.

Para ello, se invita a la población a colaborar en la elaboración del plan con propuestas y sugerencias. Es de gran importancia la colaboración para que se tenga en cuenta la opinión ciudadana en la redacción del trabajo. Además de las sesiones que se realizarán en cada pueblo, se pueden enviar propuestas y sugerencias sobre el PGM al correo electrónico ***pgmvalledearce@gmail.com***. En la página web del Ayuntamiento del Valle de Arce estará disponible toda la documentación sobre el PGM.



Argazkia | Foto: Joseba Abaurrea Oroz

# Ekarpen ekonomikoa DANAk eragindako udalerriei

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (NUKF) bitartez, Artzibarko Udalak dohaintza ekonomiko bat egin du Valentzian DANA jasan duten herri eta pertsonentzat.

NUKF Valentziako hainbat erakunderekin elkarlanean ari da, tokiko erakundeek eman dezaketen laguntza modu eraginkorrean bideratzeko. Jakinarazi dutenez, une honetan, kaltetutako guneetan lan egiten duten erakundeei dirulaguntzak ematea da lehentasuna.

Era berean, Udalak Joseba Abaurrea Oroz bailarako bizilagunaren elkartasuna eta lana eskertu nahi izan ditu, izan ere, kaltetutako herrietara joan da bere makineriarekin, berreraikitze lanetan laguntzeko.

# Aportación económica a los municipios afectados por la DANA

A través de la Federación Navarra de Municipios y Concejos (FNMC), el Ayuntamiento del Valle de Arce ha realizado una donación económica para las localidades y personas afectadas por la DANA en Valencia. La FNMC está trabajando de manera coordinada con distintas instituciones valencianas para que la ayuda que las entidades locales puedan ofrecer sea canalizada de manera efectiva. Según informan, en este momento, las donaciones económicas a organizaciones que trabajan en las zonas afectadas son la prioridad.

Asimismo, el Ayuntamiento también ha reconocido y agradecido la solidaridad y la labor que ha realizado un vecino del valle, Joseba Abaurrea Oroz, quien ha acudido a los municipios afectados con su maquinaria para colaborar en las labores de reconstrucción.




Silvia Gómez González
Berdintasun teknikaria

# "Pertsona guztiak animatu nahi ditut beren ideiak, esperientziak eta proposamenak partekatzera, etorkizun berdintsuago bat eraikitzeko"

*Silvia Gómez González Artzibarko, Erroibarko, Aezkoako eta Orotz-Beteluko berdintasun teknikari berria da. Hilabete batzuk darama zerbitzu honen buru, ilusioz eta lan egiteko gogoz. Berarekin hitz egin dugu Berdintasun Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak eta landa eremuetan berdintasuna sustatzeko dituen erronkak konta diezazkigun.*

**Zeintzuk dira genero berdintasunaren inguruko erronkak eskualdean?**

Nire ustez, herritarrek jakin behar duten lehenengo gauza da Berdintasun Zerbitzuaren ibilbidea NABIk, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, oso ondo zehaztua duela, eta bere **Ibilbidean** berdintasunari dagokionez udal arloetako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko, oso esparru sendoa proposatzen digula, gure lana horretan oinarritzeko. Zehazki lau arlo nagusi lantzen dira:

Lehenengoa **Tokiko Gobernantza eta Genero Zeharkakotasuna** da, eta helburu nagusia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lehentasuna izatea Udalen agenda politikoan, eta, hortaz, genero-ikuspegia politika publiko guztietan txertatuta egotea. Ildo horretan, prestakuntza espezifikoak egiten hasi gara zerbitzuaren parte diren udaletako politikariekin.

Bigarrenik, **Emakumeen Aurkako Indarkeria**ren arloa dugu. Ildo horretan, hezkuntza eta sentsibilizazio programak ezartzen aritu gara genero indarkeria prebenitzeko, batez ere eskualdeko biztanle gazteenei begira, ikastetxe eta institutuetan.

Gizon taldeak ere baditugu, urtean zehar formatzaile espezializatu batekin saioak egiten dituztenak. Gainera, Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 2021ean emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean egin beharreko jarduketa koordinatzeko prestatu zuen tokiko protokoloa dugu oinarri. Protokolo horrek aukera ematen du indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak modu integralean artatzeko, bai eta, haiekin batera joaten badira, haien seme-alaba adingabeak ere. Gaur egungo erronka nagusietako bat da bailaretako beharrak identifikatzen jarraitzea, kontzientziatzen jarraituko duten ekintzak proposatzeko.

> "Gaur egungo erronka nagusietako bat da bailaretako beharrak identifikatzen jarraitzea, kontzientziatzen jarraituko duten ekintzak proposatzeko"

Hirugarren arloari dagokionez, **Zaintza, erantzukidetasuna eta kontziliazioa**, duela gutxi diagnostiko bat egin dugu bailaretako zainketen eta erantzukidetasunaren egoerari buruz, bertatik bertara ezagutzeko zein den eskualdearen errealitatea eta zein behar zehatzetan esku hartu behar den. Diagnostiko horren helburua da erantzukidetasuna sustatzea, hau da, eginkizunen, zainketen eta horiek dakarten zama mentalaren banaketa bidezkoa. Halaber, lana eta bizitza pertsonala uztartzea nola erraztu dezakegun jakin nahi dugu, emakumeek, beren ingurunearen zaintzaile nagusiak izan ohi direnek, beren bizitza pertsonala, soziala eta profesionala erabat garatu ahal izan dezaten.

Azkenik, **Emakumeen ahalduntzea**, parte-hartze soziopolitikoa eta balio-aldaketa arloa dugu, nagusiki emakumeen emantzipazio ekonomikoa sustatzera bideratua. Nola? Prestakuntza, berdintasunezko enplegua edo ekintzailetza eskuratuz. Alde horretatik, gure landa-inguruneak biztanle guztiei eragozten die enplegua lortzea. Hala ere, Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 2022an egindako genero diagnostiko batean, ikusi zen inguruko emakume langileen %83,33k lanaldi partzialarekin lan egiten dutela edo lan egin dutela, gizonek ez bezala. Gainera, inkesta erantzutean "Etxeko lana", "pentsioduna" edo "aurre-erretiratua/erretiratua" aukeratu zuten gehienak 55 urtetik gorako emakumeak izan ziren, eta "Etxeko lana" hautatu zutenen kasuan emakumeak % 4.54 izan ziren, eta gizonak, berriz, % 1.94. Testuinguru hori kontuan hartuta, interesgarria da hor dauden desberdintasun horiek arintzeko lan egitea, nahiz eta oraindik bide luzea dagoen.

**Sakabanatuta dauden herriak dira, biztanle gutxi eta zerbitzu falta dutenak, eta horrek batzuetan zaildu egin dezake berdintasunaren arloan esku hartzea eta parte hartzea. Zeintzuk dira landa eremuan berdintasun balioak sustatzeko lana sostengatu eta indartzeko gakoak?**

Egia da landa eremuan bizitzeak erronka bereziak dituela berdintasuna sustatzeko. Zerbitzuekiko distantziak eta komunitate txikiak izateak zaildu egin dezake programetan parte hartzea eta aukerez baliatzea. Hala ere, guztion parte hartzea funtsezkoa da gauzak aldatzeko.




"Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 2022an egindako genero diagnostiko batean, ikusi zen inguruko emakume langileen %83,33k lanaldi partzialarekin lan egiten dutela edo lan egin dutela, gizonek ez bezala"

**Ezin dugu ahaztu emakume eta gizonen arteko berdintasunaz ari garenean, pertsona guztiez ari garela. Ezberdintasunak guztioi eragiten digu, eta horregatik da hain garrantzitsua elkarrekin lan egitea. Nola egin dezakegu?**

Lehenik eta behin, aitortu eta ulertu behar dugu testuinguru jakin batean hazi garela, balioek, kultur arauek eta bestelako ezaugarriek gure portaera definitu dutela eta desberdintasun horiek sortu dituztela. Horri buruz ikasteko eta kontzientzia hartzeko, trebatu egin behar da. Egin ditzagun tailerrak, hitzaldiak eta jarduerak, pentsatzen eta sentitzen dugunaz beldurrik gabe hitz egin dezagun. Horrela, poliki-poliki, denok elkar errespetatuko eta balioetsiko dugun giroa sortuko dugu.

Uste dut oso garrantzitsua dela kontzientziak astintzen hastea eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasunek guztioi eragiten diguten moduaz sentsibilizatzea. Horrela bakarrik lortuko dugu aldaketak ematea.

Beharrezkoa da gogoraraztea guztion ahotsa garrantzitsua dela, eta komunitateari eragiten dioten erabakietan parte hartzea ezinbestekoa dela etorkizun justuago bat eraikitzeko. Gainera, erakundeekin eta beste gizarte-eragile batzuekin batera lan egiten badugu, gure inpaktua biderkatzea lortuko dugu.

**Zainketen eta erantzukidetasunaren diagnostikoa egiten ari zaretela esan duzu. Nola ari zarete egiten?**

*"Zainketen eta Erantzukidetasunaren Diagnostikoa"* lantzen aritu gara, nagusiki bi behaketa-ardatzetan oinarrituta: Ikuspegi indibidual eta kolektibotik, diagnostiko honen bidez, herritarrek erantzukidetasunaren eta kontziliazioaren kontzeptuei buruz dituzten pertzepzioak ezagutuko ditugu; hau da, jakingo dugu gure bailaretako bizilagunek benetan identifikatzen duten eta sentsibilizatuta dauden emakumeek jasaten duten diskriminazioarekin, emakumeak baitira zaintzaile rola bete ohi dutenak, beren bizitza pertsonalaren eta profesionalaren garapena alde batera uzten dutenean, hirugarrenei arreta emateko.

Gainera, ikerketa honen bidez, zaintzaileen esperientziak eta bizipenak ezagutuko ditugu –ordainduak eta ordaindu gabeak–, lan horiek zein baldintzatan egiten dituzten ulertzeko. Ikerketa honek balioko digu, halaber, identifikatzeko pertsonen, profesionalen edo erakundeen laguntza-sare informalak edo formalak dauden zainketetarako eta kontziliaziorako.

Baliabide publiko eta pribatuen ikuspuntutik, zonaldean zainketetarako erabiltzen diren zerbitzuak, baliabideak eta kontziliazio-espazioak identifikatu nahi ditugu, eta, horrez gain, familia-erantzukizunak, etxeko lanak eta abar arintzeko zerbitzu horien eraginkortasun-maila ezagutu nahi dugu.

> "Zonaldean zainketetarako erabiltzen diren zerbitzuak, baliabideak eta kontziliazio-espazioak identifikatu nahi ditugu, eta, horrez gain, familia-erantzukizunak arintzeko zerbitzu horien eraginkortasun-maila ezagutu nahi dugu"

Ikerketa nahiko osoa da, eta aukera emango digu inguruko errealitatea ezagutzeko eta zainketekin lotutako desberdintasunak arintzera bideratutako ekintza estrategikoak planifikatzeko.

**Datorren urteari begira, zer ekintza egingo ditu Berdintasun Zerbitzuak?**

Hilabete gutxi daramat zerbitzu honetan berdintasun teknikari gisa, eta nire oraingo lehentasuna ingurua sakon ezagutzea eta urteetan eskualdean berdintasunaren alde lan egin duten pertsonen esperientziaz elikatzea da. Azaroan, lehen bilera izan genuen Berdintasun Batzordearekin, eta datorren urtera begirako ekintzak proposatu genituen lehen aipatu dudan esku-hartze arlo bakoitzeko.

Beharrezkoa ikusi genuen Berdintasun Plan bat egitea, epe luzerako lan tresna gisa eta zerbitzuaren jarraipena bermatzeko. Horrez gain, hizkera ez-sexista aplikatzeko Gida Azkarra egitea proposatu zen, udaletako teknikariei zuzendua, bai eta protokolo erraz bat ere, gaueko aisialdi-guneetan gertatzen diren eraso sexisten aurrean jarduteko, 2025eko udaberrian jaiak hasi baino lehen.

Bestalde, berdintasunaren, genero-indarkeriaren eta genero-zeharkakotasunaren gaineko trebakuntza eskainiko zaie teknikariei eta politikariei. Gainera, puntu moreak jarriko dira hainbat jai-gunetan, hala nola Aurizberriko jaietan, Artzibarko Egunean, Orotz-Beteluko jaietan eta Garraldako futbito Gaupasan.

Zainketen eta erantzukidetasunaren diagnostikoari dagokionez, behin emaitzak edukita, horien aurkezpen formala egingo da, herritar guztiei irekia eta Berdintasun Zerbitzuaren hitzarmena sinatu duten ordezkari politikoen aurrean.

Bileran emakumeentzako espazio esklusiboak sortzeko eta sentsibilizazio eta ahalduntze lan bat egiteko aukera ere mahaigaineratu zen. Eskualdeko Emakumeen Elkarteekin biltzea baloratu zen, haien ibilbide historikoa ezagutzeko eta arlo horren inguruan elkarrekin lan egiteko. Horrez gain, autodefentsa digital

> "Puntu moreak jarriko dira hainbat jai-gunetan, hala nola Aurizberriko jaietan, Artzibarko Egunean, Orotz-Beteluko jaietan eta Garraldako futbito Gaupasan"

feministari eta Ziberindarkeriari buruzko tailerrak antolatuko dira urtarrilean hainbat udalerritan.

Azkenik, ezin dugu ahaztu berdintasuna sustatzeko interesa duten pertsona, elkarte eta erakunde guztien eskura dagoen zerbitzua dela hau, eta, beraz, edozein unetan jo dezaketela nigana. Proiektu hau elkarrizketarako eta hausnarketarako espazio irekia da. Pertsona guztiak animatu nahi ditut euren ideiak, esperientziak eta proposamenak partekatzera, etorkizun berdintsuago bat eraikitzeko.

Harremanetarako:
***igualdadzona@erro.es***
**621 68 16 22**
Instagramen:
**@igualdadzona**



Silvia Gómez González
Técnica de Igualdad

# "Animo a todas las personas a compartir sus ideas, experiencias y propuestas para construir un futuro más igualitario"

*Silvia Gómez González es la nueva técnica de Igualdad del Valle de Arce, Erro, Aezkoa y Oroz-Betelu. Lleva unos pocos meses al frente de este servicio, que afronta con ilusión y ganas de trabajar. Hablamos con ella para que nos cuente los servicios que ofrece desde el Servicio de Igualdad y los desafíos a los que se enfrenta para promover la igualdad en las zonas rurales.*

**¿Cuáles son los retos en materia de igualdad de género en estos valles?**

Creo que lo primero que la ciudadanía tiene que saber, es que la ruta del Servicio de Igualdad está muy bien marcada por el INAI, que es el Instituto Navarro para la Igualdad, y que en su **Itinerario** para la planificación, gestión y evaluación del trabajo en las áreas municipales en materia de igualdad nos propone un marco muy sólido en el que basarnos en nuestra labor. Concretamente se trabaja sobre cuatro áreas principales:

La primera es la de **Gobernanza Local y Transversalidad de Género**, y su objetivo principal es que la igualdad entre mujeres y hombres sea una prioridad en la agenda política de los Ayuntamientos y que, por tanto, la perspectiva de género, esté incorporada en todas las políticas públicas. En esta línea, hemos empezado a hacer formaciones específicas con el personal político de los Ayuntamientos que forman parte del servicio.

En segundo lugar, tenemos el área de **Violencia Contra las mujeres**. En este sentido hemos estado implementando programas educativos y de sensibilización para prevenir la violencia de género, sobre todo centrados en la población más joven de los valles, en los colegios e institutos. También contamos con grupos de hombres, que realizan sesiones a lo largo del año con un formador especializado. Además, tenemos como base el Protocolo Local para la Coordinación de la actuación ante la violencia contra las mujeres de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Izaga elaborado en 2021, que permite atender de forma integral a las mujeres supervivientes de la violencia, y en el caso de que las acompañen, sus hijas e hijos menores. Uno de los retos principales actuales, es seguir identificando las necesidades de los valles para proponer acciones que continúen concienciando.

En relación a la tercera área; **Cuidado, corresponsabilidad y conciliación**, recientemente hemos realizado un diagnóstico sobre la situación de los cuidados y la corresponsabilidad en los valles, para conocer de primera mano cuál es la realidad de la zona y cuáles son las necesidades concretas sobre las que es necesario

intervenir. El objetivo de este diagnóstico es promover la corresponsabilidad, reparto equitativo de tareas, de cuidados y de la carga mental que representan. También, queremos buscar cómo podemos facilitar la conciliación de la vida laboral y personal para que las mujeres, que suelen ser las principales cuidadoras de su entorno, puedan desarrollar plenamente su vida personal, social y profesional.

> "Uno de los retos principales actuales, es seguir identificando las necesidades de los valles para proponer acciones que continúen concienciando"




En último lugar, tenemos el área de **Empoderamiento de las mujeres**, participación sociopolítica y cambio de valores, que está encaminada principalmente a promover la emancipación económica de las mujeres. ¿Cómo? a través del acceso a la formación, empleo igualitario o a través del emprendimiento. En este sentido nuestro entorno rural dificulta el acceso al empleo a todas y a todos los habitantes. Sin embargo, en un diagnóstico de género realizado en 2022 en la Mancomunidad de Servicios Sociales de Auñamendi, que también es parte del territorio de intervención de este servicio de igualdad, se observó que el 83,33% de las mujeres trabajadoras de la zona trabajan o han trabajado con una jornada a tiempo parcial a diferencia de los hombres. Además, las personas que respondieron a esa encuesta "Trabajo en casa", "pensionista" o "prejubilada/ jubilada" fueron principalmente las mujeres de 55 y más, y en el caso de "Trabajo en casa" las mujeres representaron el 4.54% frente al 1.94% de los hombres. Teniendo en cuenta este contexto, es interesante trabajar para conseguir paliar esas desigualdades que están ahí, aunque todavía queda mucho camino por recorrer para llegar a esto.

> "El 83,33% de las mujeres trabajadoras de la zona trabajan o han trabajado con una jornada a tiempo parcial a diferencia de los hombres"

**Son poblaciones dispersas, con poca población y falta de servicios, que a veces pueden dificultar la intervención y la participación en materia de igualdad. ¿Cuáles son las claves para sostener y reforzar el trabajo para promover valores de igualdad en el contexto rural?**

Es cierto que vivir en una zona rural tiene desafíos únicos para promover la igualdad. La distancia a los servicios y las comunidades más pequeñas pueden complicar el acceso a programas y oportunidades. Sin embargo, la participación de la comunidad, de todos y todas es clave para cambiar las cosas.

No podemos olvidar que cuando hablamos de igualdad entre mujeres y hombres, hablamos de todas las personas. La desigualdad nos afecta a todos y todas y por eso es tan importante que trabajemos conjuntamente. ¿Cómo podemos hacerlo? Primero tenemos que reconocer y entender que hemos crecido en un contexto concreto, con unos valores, normas culturales y sesgos que definen y marcan nuestro comportamiento y que generan

estas desigualdades. Para aprender sobre esto y tomar conciencia, hay que formarse. Hagamos talleres, charlas y actividades donde podamos hablar de lo que pensamos y sentimos sin miedo. Así, poco a poco, crearemos un ambiente donde todos y todas nos respetemos y valoremos.

Creo que es muy importante empezar a agitar las conciencias y sensibilizarnos en la forma en la que las desigualdades entre hombres y mujeres nos afectan a todos y a todas. Solo así podremos generar cambios.

Es necesario recordarnos que la voz de todas y de todos es importante, y que participar en las decisiones que afectan a la comunidad es imprescindible para construir un futuro más justo. Además, trabajar conjuntamente con instituciones, organizaciones y otros actores sociales nos permitirá multiplicar nuestro impacto.

**Has comentado que se está realizando un diagnóstico de cuidados y corresponsabilidad, ¿cómo lo estáis llevando a cabo?**

Hemos estado trabajando en un "Diagnóstico de Cuidados y Corresponsabilidad" que se basa principalmente en dos ejes de observación: Desde el punto de vista individual y colectivo, con este diagnóstico conoceremos las percepciones de la población sobre los conceptos de corresponsabilidad y conciliación, es decir, conocer si realmente nuestros valles identifican y están sensibilizados con la discriminación que sufren las mujeres, que son las que habitualmente ejercen el rol de cuidadora, cuando dejan de lado el desarrollo de su vida personal y profesional para atender a terceros.
Además, a través de este estudio conoceremos las experiencias y vivencias de personas cuidadoras –remuneradas y no remuneradas, para comprender las condiciones en que ejercen estas labores. Además, este estudio nos va a servir para identificar si existen redes de apoyo informales o formales de personas, profesionales o instituciones para los cuidados y la conciliación.

Desde el punto de vista de los recursos públicos y privados, queremos identificar los servicios, recursos y espacios de conciliación para los cuidados en la zona y de los que se hace uso, además de conocer el nivel de eficacia de estos servicios que están dirigidos a aligerar las responsabilidades familiares, tareas domésticas etc.

Es un estudio bastante completo que nos va a permitir conocer la realidad de la zona y planificar acciones estratégicas encaminadas a paliar las desigualdades en relación a los cuidados.

> "Queremos identificar los servicios, recursos y espacios de conciliación para los cuidados en la zona y de los que se hace uso, además de conocer el nivel de eficacia de estos servicios que están dirigidos a aligerar las responsabilidades familiares"

**De cara al año que viene, ¿qué acciones se van a realizar desde el Servicio de Igualdad?**

Hace apenas unos meses que me he incorporado como técnica de igualdad y mi prioridad actual es conocer el entorno en profundidad y nutrirme de la experiencia de las personas que han trabajado por la igualdad en los valles durante años. En noviembre, tuvimos la primera reunión con la Comisión de Igualdad y propusimos acciones de cara al año que viene por cada área de intervención que he comentado anteriormente.

Vimos necesaria la elaboración de un Plan de Igualdad, como herramienta de trabajo a largo plazo y en vista de garantizar la continuación del servicio. Además, se propuso elaborar una Guía Rápida de aplicación del lenguaje no sexista dirigido al personal técnico de los Ayuntamiento y así como un protocolo sencillo de actuación ante casos de agresiones sexistas en espacios de ocio nocturno antes del inicio de las fiestas en primavera de 2025.

Por otra parte, se continuará con la formación a personal técnico y político en materia de igualdad, violencia de género y transversalidad de género. Además, se incorporarán puntos violetas en varios espacios festivos como las fiestas de Espinal, Día del Valle de Arce, Fiestas de Orotz Betelu y en la Gaupasa de Futbito en Garralda.

En cuanto al Diagnóstico de Cuidados y corresponsabilidad, una vez que se tengan los resultados, se llevará a cabo una presentación formal de los resultados abierta a toda la ciudadanía y en presencia de los representantes políticos firmantes del convenio del Servicio de Igualdad.

También se planteó la posibilidad de generar espacios exclusivos para las mujeres y realizar un trabajo de sensibilización y empoderamiento. Se valoró reunirse con las Asociaciones de Mujeres de la zona para conocer el recorrido histórico y trabajar conjuntamente sobre esta área. Además, en enero se llevarán a cabo en varios Ayuntamientos talleres de autodefensa digital feminista y Ciberviolencias.

> "Se incorporarán puntos violetas en varios espacios festivos como las fiestas de Espinal, Día del Valle de Arce, Fiestas de Orotz Betelu y en la Gaupasa de Futbito en Garralda"

Por último, no podemos olvidar que este es un servicio a disposición de todas las personas, asociaciones y entidades interesadas en promover la igualdad, y que, por tanto, pueden recurrir a mí en cualquier momento. Este proyecto es un espacio abierto para el diálogo y la reflexión. Quiero animar a todas las personas a compartir sus ideas, experiencias y propuestas para construir un futuro más igualitario.

Contacto:
***igualdadzona@erro.es***
**621 68 16 22**
Instagram: **@igualdadzona**

# Artzibarko kultur jarduerak | Actividades culturales Valle de Arce

| NOIZ \| CUÁNDO | | | JARDUERA \| ACTIVIDAD | NON \| DÓNDE |
|---|---|---|---|---|
| ABENDUA DICIEMBRE | 21 | 17:30 | Elkartuko dira Olentzerori eramateko eskutitzak, Ondoren haurrendako tailerrak izanen dira.<br>Se juntarán para entregar las cartas a Olentzero. Después, talleres infantiles. | Saragueta Saragüeta |
| | 24 | 18:00 | **OLENTZERO** | Saragueta Saragüeta |
| | 28 | 17:00 | Yoga eta meditazioa \| Yoga y meditación<br>Artzibarko udaletxean \| En el Ayuntamiento de Arce | Nagore |
| URTARRILA ENERO | 18 | 18:30 | Hitzaldia \| Charla: Toponimia. **Mikel Belasko**<br>Artzibarko udaletxean \| En el Ayuntamiento de Arce | Nagore |
| MARTXOA MARZO | 8 | | **EMAKUMEAREN EGUNA \| DÍA DE LA MUJER** | |
| | 22 | 19:00 | Kontzertua \| Concierto: **ILARGI BERRIA** (Edurne eta Markel) | Zehazteke Por concretar |
| APIRILA ABRIL | 12 | 19:00 | Magia ikuskizuna \| Espectáculo de magia | Zandueta |
| MAIATZA MAYO | 17 | 19:00 | Ganbara musika \| Música de cámara: **CONSORT 1616** | Zehazteke Por concretar |
| | 15-25 | | **EUSKARALDIA** | |

## Olentzero abenduaren 24an iritsiko da Saraguetara

Abenduaren 24an, asteartea, Olentzero opariz eta ilusioz beteta iritsiko da Saraguetara. Artzibartarrek, urtero bezala, ongietorri berezia prestatu diote. Olentzero menditik jaitsi eta 18:00etan iritsiko da Saraguetara eta kantuz eta musikaz egingo diote harrera. Gainera, Gabonetako ohiko saskiak zozketatuko dira eta ardoa eta gaztainak banatuko dira, Olentzerok opariak ematen dituen bitartean.



## Olentzero llegará a Saragüeta el 24 de diciembre

El martes 24 de diciembre Olentzero llegará a Saragüeta cargado de regalos e ilusión. Los y las artzibartarrak, como cada año, le han preparado una bienvenida muy especial. Olentzero bajará del monte y llegará a Saragüeta a las 18:00, en una cálida bienvenida con música y cánticos. Además, se sortearán las tradicionales cestas de Navidad y habrá vino y castañas mientras Olentzero reparte los regalos.

# Neguko solstizioaren inguruko ohiturak

**Gabon gaua eta Eguberria**
Gabon gauaren egunean enbor bat edo bi jartzen ziren suaren erdian eta ahal zen denbora gehien iraunarazi behar zitzaien. Enborrari ematen zitzaion izena aldatzen da herri batetik bertzera, Lusarretan *bazterreko* erraten zioten, baita *txunbil* edo *zunbil* ere. Hiriberrin bi izen erabiltzen ziren, enborraren arabera, *sukil* eta *bazterreko*. Gorraitzen beheko suari *txakurtegi* deitzen zioten. Enborra erre ondoren gelditzen zen ikatza arditegiaren atarian paratzen zen, piztiak izutzeko. Ibarreko zenbait herritan, Saraguetan adibidez, enbor bat Jainkoari eta bertzea Ama Birjinari eskaintzen zieten. Enborren iraunaldia ez zen berdina, Arrietan urte berria arte iraun behar zuen eta *sukilaro* deitzen zioten (iraunarazteko hezea zegoenean mozten zuten). Hiriberrin Gabon Gauari *sukilero eguna* erraten zioten.



# Costumbres en torno al solsticio de invierno

**Nochebuena y Navidad**
El día de nochebuena se encendía en el hogar o fogón uno o dos grandes troncos que debían durar un tiempo prolongado según costumbre de cada pueblo. En Lusarreta el tronco recibe el nombre de *baztarreko* y también los de *txunbil* o *zunbil.* En Villanueva distinguen el *sukil* del *baztarreko.* El fogón en Gorraiz se conoce como *txakurtegi*. El carbón sobrante de la quema del tronco se colocaba en la puerta del establo de las ovejas con el fin de ahuyentar a las alimañas. En algunos pueblos del valle, como en Saragüeta, uno de los dos troncos se destina a Dios y el otro a la Virgen. La duración de este ritual de combustión es variable. En Arrieta debía durar hasta el año nuevo y recibe el nombre de *sukilaro* (para que durase lo cortaban algo verde).

**Urtezaharra**
Urtezaharraren edo urte berriaren ondotik sukaldeari erratza pasatu ondoren gari edo arto pikorrak agertzen baziren, urte berrian uzta ona izango zenaren seinale hartzen zen.

**Nochevieja**
Si después de barrida la cocina en nochevieja, o año nuevo en algunos pueblos, aparecían granos de trigo o maíz por algún rincón, el hecho se interpretaba como un augurio de buena cosecha.

**Erregealdia**
Familia Errege Egunaren bezperako gauean elkartzen zen eta erregea hautatzen zuten, familia kideen artean. Hautaketa zoriz egiten zen, kartak erabiliz. Familia buruak edo adinez nagusienak kartak banatzen zituen, Jainkoa eta Ama Birjina ere sartuz. Hautatutako erregeak txokolate jatera edo Errege eguneko gosarira gonbidatu behar zuen familia. Lusarretan erregeari oroitarazten zioten gonbidatu behar zituela, normalean txokolate libera izaten zen.

Ohiturak herri batetik bertzera aldatzen ziren. Adibidez, Lusarretan ohikoa zen karten banatzailea gazteena izatea, Hiriberrin urre-erregearen karta erabiltzen zuten erregea izendatzeko, eta Ekiza eta Gorraitzen, aldiz, urre-batekoa. Arrietan ez zuten Ama Birjina sartzen banaketan. Lakaben, familia gutxi zeudenez, guztiak etxe batean elkartzen ziren hautaketa egiteko. Erregea aukeratu ondoren gazteak leiho eta balkoietara ateratzen ziren eta gero herriko karriketan barna ibiltzen ziren zintzarriak eta joareak joz, etxe bakoitzean hautatuaren izena oihukatuz.



**El reinado**
La familia se reunía la noche anterior al día de Reyes y elegía, entre sus miembros, al rey. El cabeza de familia o la persona de más edad, repartía las cartas incluyendo en el reparto a Dios y a la Virgen. El elegido rey estaba obligado a invitar a la familia a una chocolatada o al desayuno de la mañana de Reyes.

En Lusarreta al rey le recordaban su obligación con la frase «fulano tienes que pagar la besugada» que consistía, pese a lo que pueda parecer, en una libra de chocolate. Otras variantes recogen la costumbre de que sea precisamente el más joven quien reparta las cartas (Lusarreta) o se señala que la carta designatoria sea el rey de oros (Villanueva) o el as de oros (Ekiza, Gorraiz). En Arrieta, por ejemplo, no incluyen a la Virgen en el reparto. En Lakabe, donde vivían pocas familias, se juntaban todas en una sola casa para efectuar la elección. Después de la elección del rey, los/as jóvenes bajaban a la calle donde con gran alboroto recorrían el pueblo agitando las esquilas o cencerros del ganado nombrando a la persona elegida en cada casa.



Argazkia | Foto: Turismonavarra.com

# Inauterietako ohiturak

Epifania eta Aste Santuaren artean ospatzen ziren, batzuetan lehenago, eta bestetan, geroago; zenbaitetan, gazteek erabakita; eta finkoak baziren, gehienetan Aste Santu aitzineko egunetan.

Artzibarren, egun nagusiak igandea eta asteartea izaten ziren. Honela dio Aranburuk:

*"Zenbait herrik igandea baizik ez dute ospatzen, eta beste batzuek, aldiz, asteartea besterik ez. Lehenbizikoen artean, Imizkotz, Lusarreta, Artozki eta beste batzuk daude, eta bigarrenen artean, berriz, Nagore. Beste zenbaitetan, berriz, bi egun horietan ospatzen zituzten, eta ohikoa izaten zen igandean eskean aritzea, eta asteartean berendua antolatzea."*

Eskean zenbait kopla kantatzen ziren. Aranburuk gaztelaniazkoak eta euskarazkoak bildu zituen: *«La patrona de esta casa es una santa mujer /pero más santa sería si nos daría de beber»* (Azparren). Bertsoaren bukaera hauxe izan daiteke, *«... si nos diera de comer»*, *edo bestela, «...si nos diera un café».*

Hiriberrin erran digute "txingar" urdaia dela, eta honetaz oroitzen dira: *«riai talagarai txingar piskat ez eman nahi».*

Arrietan, orduen kontrako zentzuan aritzen dira eskean, eta bi egunetan banaturik. Igandean goialdean, eta asteartean, herriaren behealdean. Batzuetan, ibilbidea aski luzea izaten da; adibidez, Artozkiko gazteak Ekizako baserriraino igotzen ziren, eta Gorraizkoak Lakaberaino iristen ziren.

Ohiko mozorroa jantzi zaharrez osatutako jantzi zehaztugabeen, erabiltzen ez ziren emakumezkoen soinekoen eta maskara sinpleen nahasketa zen. Horrela mozorrotutako neska-mutilei *muzizarkoak, mozizarkoak, zaratakoak, moxorroak* eta *muxuzarkoak* deitzen zieten. Inauteriak 1920ko hamarkadan hasi ziren galtzen, eta Francoren diktadura garaian, guztiz debekatu zituzten.

# Costumbres de carnavales

Con fecha variable, se celebraban entre la epifanía y Semana Santa, unas veces por acuerdo de los jóvenes, y si eran fijas, normalmente los días anteriores a la Semana Santa.

En Artzibar los días fuertes eran el domingo y el martes. Así lo relata Aranburu:

*"Algunos pueblos celebran sólo el Domingo y otros lo hacen solamente el Martes. Entre los primeros están Imizkoz, Lusarreta, Artozki,... y entre los segundos, Nagore. En aquellos otros en los que la celebración comprendía los dos días, era frecuente que el Domingo se dedicase a la cuestación y el Martes se organizase la merienda."*

En la cuestación se solían cantar estrofas, de las que Aranburu recopiló alguna en castellano y euskara: "*«La patrona de esta casa es una santa mujer /pero más santa sería si nos daría de beber»* (Azparren). El verso puede acabar en *«... si nos diera de comer»* o también *«...si nos diera un café».*

En Villanueva nos explican que txingar equivale a urdaia y recuerdan este estribillo: *«riai talagarai txingar piskat ez eman nahi».*

En Arrieta la cuestación se efectúa recorriendo el pueblo en sentido antihorario y en dos fases: el Domingo por la parte alta y el Martes por la parte baja del pueblo. En ocasiones el itinerario es de longitud considerable, como el que los mozos de Artozki efectuaban para subir hasta el caserío de Ekiza, o los de Gorraiz que llegaban hasta Lakabe.

El disfraz habitual consistía en una mezcla de indeterminados atavíos compuestos de ropas viejas, vestidos femeninos en desuso y sencillas máscaras o caretas. Los y las mozas así disfrazados/as reciben los nombres de *muzizarkos, mozizarkos, zaratakos, moxorros* y *muxuzarkos*. Los carnavales empezaron a perderse en la década de 1920, y a partir de la dictadura franquista serán totalmente prohibidos.




# Urizar, gure lurraldeko ondarea argitara atera nahi duen elkarte berria

*"Gure historia hurbilaren ondarea berreskuratzea, kultura material eta sinbolikoko objektuen, irudien eta dokumentuen bidez, haiek babesteko eta haien dibulgazioa bereziki azpimarratuta". Premisa horrekin sortu da Urizar, gure bailaretako ondare kultural eta historikoa argitara atera eta balioan jarri nahi duen kultur elkarte berria.*

Urteetan ondarea balioan jarriz lan egin eta borrokatu duten pertsonek bultzatu dute, hura babestu, berreskuratu, interpretatu eta zabaltzeko helburuarekin. Hasiera-hasieratik parte hartu zuen Rafael Zubiriak, orain dela gutxi zendua eta Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoa, erakundearen bultzatzaileetako bat izan da, Artzibarrarekin oso lotua eta konprometitua; beste bat Juan Mari Martinez Txoperena izan da, ofizioz zaharberritzailea eta afizioz arkeologoa, Aranzadiko kidea eta gure lurraldean egindako ikerketa arkeologiko guztiei oso lotua; eta Rafael Ballano basozaina, ingurua ongi ezagutzeaz gain, etnografian eta ondare historikoan oso interesatua.

Duela urtebete inguru, Javier Diez alkate eta Artzibarko bizilagunarekin harremanetan jarri ziren, beren bizitzan zehar aurkitu eta bildu duten ondare material guztia gordetzeko leku bat bilatzeko. Kultura material eta sinbolikoaren ondasunei balioa emateak eta, batez ere, herritarren artean zabaltzeak duen garrantziaz jabetuta, Urizar kultur elkartea eratu zuten. Horretarako, adierazi dutenez, *"bazkide sortzaileen bilduma partikularrak eta dohaintza edo gordailu erregimenean Elkarteari gehitzen zaizkion ondorengo ekarpen guztiak gordeko ditugu"*. Bildumek mota guztietako materiala dute: tresna txikiak, goldeak, garia jotzeko makinak, uztarriak eta eman daitekeen beste edozein material, baita Artozkiko hainbat eraikinetako arkuak ere. Pieza batzuk erabat berreskuratuta daude, eta beste batzuek lan handia dute egokitzeko.

Hainbat aukera aztertu zituzten, eta, azkenean, Agoitzen alokatu dute nabe bat, Solano fabrika zaharrean, proiektu eta enpresentzako espazioak hartzen dituena. Azken helmuga gisa, ordea, Ekaiko zerrategira lekualdatu ahal izatea espero dute, mende hasieran sortu zen industria ondare guztia berreskuratzeko eskualdeko proiektu estrategikoaren baitan. *"Leku egokia litzateke industria-ondare guztia hartzeko, eta, zergatik ez, baita ondare historiko, etnografiko, kultural eta emigratu hori guztia ere"*, adierazi du Díezek.

Artzibar ez ezik, Orotz-Betelu, Agoitz eta Longidako udalerriak ere proiektuan sartuta daude.

Horregatik guztiagatik, herri eta bailara horietako herritarrak animatzen dituzte, izan pertsona partikularrak eta/edo elkarteak, parte hartzeko eta laguntzeko. *"Edozein lanetarako eskuak behar ditugu: fitxak egiteko, sailkatzeko, ordenatzeko, zaharberritzeko... azken finean, proiektua bultzatzeko"*.

Elkarteak azaroan egin zuen lehen bilera, Agoitzen, eta, besteak beste, logoa aurkeztu zuten. Forma karratuak *"gizartea zegoen mundu itxia adierazten du, eta bertan irekiera bat gertatu zen teknologiaren etorrerari esker, eta, horrekin batera, ideia eta aukera berrien etorrera ere"*. Bide on Urizarri.




# Urizar, una nueva asociación que busca sacar a la luz el patrimonio de nuestro territorio

*Recuperar el patrimonio de nuestra historia reciente, a través de objetos de la cultura material y simbólica, imágenes y documentos, con el fin de protegerlos haciendo especial hincapié en la divulgación de los mismos". Con esta premisa nace Urizar, una nueva asociación cultural que quiere sacar a la luz el patrimonio cultural e histórico de nuestros valles y ponerlo en valor.*

La impulsan personas que han trabajado y luchado por años poniendo en valor el patrimonio, con la misión de protegerlo, recuperarlo, interpretarlo y difundirlo. Desde los inicios participó Rafael Zubiria, recientemente fallecido y arqueólogo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, siendo uno de los impulsores de la entidad y muy vinculado y comprometido con el Valle de Arce; Juan Mari Martínez Txoperena, restaurador de oficio y arqueólogo por afición, también miembro de Aranzadi, y muy vinculado a todas las investigaciones arqueológicas realizadas en nuestro territorio, y Rafael Ballano, guarda forestal con un gran conocimiento del terreno, interesado en la etnografía y en todo el patrimonio histórico.

Hace un año más o menos, contactaron con Javier Díez, alcalde y vecino del Valle de Arce, en la búsqueda de un lugar en el que poder guardar todo el patrimonio material que han ido descubriendo y recogiendo a lo largo de sus vidas. Siendo conscientes de la importancia que tiene otorgar el valor a los bienes de la cultura material y simbólica, y sobre todo, difundirlos entre la población, constituyeron la asociación cultural Urizar. Para ello, según indican, *"contaremos con las colecciones particulares de los socios fundadores y con todas las posteriores aportaciones que se vayan sumando a la Asociación en régimen de donación o de depósito"*. Las colecciones contienen material de todo tipo: desde pequeñas herramientas hasta bravanes, trilladoras, yugos, y otros materiales que puedan donarse, así como arcos de Artozki. Hay piezas que están totalmente recuperadas y otras que necesitan mucho trabajo.

Barajaron varias opciones y, finalmente, han alquilado una nave en Aoiz, en la antigua fábrica de Solano que alberga espacios para proyectos y empresas. Como último destino, sin embargo, esperan que se pueda trasladar al Aserradero de Ekai, en el marco del proyecto estratégico comarcal para recuperar todo el patrimonio industrial que se generó a principios de siglo. *"Sería un buen sitio para acoger todo el patrimonio industrial y, por qué no, también todo este patrimonio histórico, etnográfico, cultural y emigrado"*, apunta Díez.

Además del Valle de Arce, están involucrados en el proyecto los territorios de Oroz-Betelu, Aoiz y Lónguida. Por todo ello, animan a la población de estos pueblos y valles, ya sean personas particulares y/o asociaciones a participar y colaborar con estos fines. *"Nos hacen falta manos para todo tipo de trabajos: ya sea realizar fichas, clasificar, ordenar, restaurar... para impulsar el proyecto".*

La asociación hizo una primera reunión en noviembre en Aoiz, en la que, entre otras cosas, presentaron su logo. La forma cuadrada *"significa el mundo cerrado en el que se encontraba la sociedad, en el que se produce una apertura gracias a la llegada de la tecnología, y con ella, de nuevas ideas y oportunidades"*. Buen camino a Urizar.



Argazkia | Foto: Diario de Navarra

*Emakumeak erdigunean jarri, eta haien bizimoduaz asko ikertu du Amaia Nausia Pimoulier historialariak (Iruñea, 1982). Kontatu ez diguten historiari hitza jartzen dio ikerlariak eta irailean hura entzuteko plazera izan genuen ‘Sorginak euskal kulturan: errealitate historikotik gaur egungo mitora’ hitzaldian.*

Nafar Pirinioetan emandako sorgin-ehiza eta emakumeen aurkako errepresioa azaldu zuen Nausiak. Hain zuzen ere, Auritzen, 1525ean, Nafarroa Garaiko sorginkeriaren aurkako lehenengo prozesu orokorra eman zen. 2025eko ekainaren 19an 500 urte beteko dira eta heldu den urtean oroitze ekitaldia antolatuko da.

**Nola hurbildu zara sorginen historia ikertzera?**
Nire doktoretza tesia XVI. eta XVII. mendeetako Nafarroako emakume alargunen inguruan egin nuen. Garaiko emakumearen ideala eta baita ere emakumeekiko zegoen begirada ezkorra ikertu nituen. Besteak beste, konturatu nintzen sorginkeriagatik salatutakoen %70-80 artean, emakumeak eta alargunak zirela.
Nola irudikatu ditugu sorginak orain arte? Bakarrik bizi ziren emakumeak bezala, zaharrak, itsusiak, boteretsuak eta gaizkia egiten zutenak. Oso garai misoginoa zen eta emakumeak ez zeuden ongi ikusiak, are gutxiago alargunak. Ideologia patriarkala justifikatzen da esaten emakumeak beti egon behar zirela gizon baten menpe, emakumeak ustez ahulagoak zirelako, deabruarekin paktuak zituztelako etab. Alargunak, beraz, senarrik gabe, helduak eta zaharrak, sistemarentzat ez ziren beharrezkoak. Ezta desiragarriak ere. Alarguntasunak batzen du patriarkatuaren beldur asko. Horrek guztiak batuketa arriskutsu bat eragiten du, eta azaltzen du zergatik salatutako asko alargunak ziren.

**Oraindik badago sorginaren irudi hori, baina baita ere beste idealizazio bat, emakumeen ikur bezala. Nola iritsi gara horraino?**
Azkenaldian aldarrikatzen ari da sorginaren irudia, emakumearen askatasunaren figura bezala, baina hori ez dator bat errealitate historikoarekin. Emakumeen historia aztertzen dugunean jakin behar dugu ez garela biktima perfektuak ezta heroinak ere. Feminismoaren ikuspuntutik ez dut uste ere mesederik egiten digunik. Berdintasunaren eta askatasunaren aldarrikapena idealizaziorik gabe egin behar dela uste dut. Emakume horiek biktima izan ziren baina baita ere morroi. Historia aztertzen dugunean badugu joera biktimarekin enpatizatzeko baina askotan ez diogu gure buruari galdetzen garai horretan ez ote ginen izango salaketak egiten genituenak, hau da, beste aldean geundenak. Kontua konplexuagoa da eta ez hain dikotomikoa.

**Euskal mitologian ere dago orain sorgina…**
Pertsonaia mitologiko bihurtu dugu sorgina baina berez ez da existitu euskal mitologian. Sorginak subjektu historiko bezala aztertzen baldin baditugu, tratatuetan agertzen dena da emakume gaizto bat deabruarekin paktua egin zuena eta beste sorgin batzuekin batera gaizkia egiten zuena komunitatean. Hori ez da existitu. Baina ‘sorgintzat’ hartu ditugunak ez ziren ezta ere ezohiko emakumeak, askeak, libreak, jakinduria handikoak eta horregatik jazarriak izan zirenak. Horietako asko emakume arruntak ziren, garai bateko biktimak, hori bai, emakumeen kontrako olatua handiena eman baitzen. Historian emandako feminizidio handiena izan zen.

“Hemos convertido a la bruja en un personaje mitológico, pero realmente no ha existido en la mitología vasca”

*La historiadora Amaia Nausia Pimoulier (Pamplona, 1982) ha puesto a las mujeres en el centro y ha investigado mucho sobre su forma de vida. La investigadora pone voz a una historia que no nos han contado y en septiembre tuvimos el placer de escucharla en la charla ‘Las brujas en nuestra cultura: de la realidad histórica al mito actual’*

Amaia Nausia habló sobre la caza de brujas y la represión contra las mujeres que se dio en el Pirineo Navarro. Concretamente en Auritz/Burguete, en 1525 tuvo lugar el primer proceso contra la brujería de Alta Navarra. El 19 de junio de 2025 se cumplirán 500 años y se organizará un acto en recuerdo de aquellos hechos.

**¿Cómo has llegado a investigar sobre la historia de la brujería?**
Hice mi tesis doctoral en torno a las viudas de Navarra de los siglos XVI y XVII. Estudié el ideal de mujer de la época y también la mirada negativa hacia las mujeres. Entre otras cosas,

me di cuenta de que entre el 70% y el 80% de las personas denunciadas por brujería eran mujeres y viudas.
¿Cómo hemos representado a las brujas hasta ahora? Vivían solas, viejas, feas, poderosas y malvadas. Era una época muy misógina y las mujeres no estaban bien vistas, y menos las viudas. La ideología patriarcal se justifica diciendo que las mujeres siempre debían depender de un hombre, porque las mujeres eran supuestamente más débiles, porque tenían pactos con el diablo, etc. Las viudas, pues, sin marido, mayores y viejas, no eran necesarias para el sistema. Ni siquiera deseables. La viudedad une muchos temores al patriarcado. Todo ello explica por qué muchas de las personas denunciadas eran viudas.

**Todavía existe esa imagen de la bruja, pero también se ha idealizado como símbolo de las mujeres. ¿Cómo hemos llegado hasta aquí?**
Últimamente se está reivindicando la imagen de la bruja como figura de la libertad de la mujer, pero eso no se corresponde con la realidad histórica. Cuando analizamos la historia de las mujeres debemos saber que no somos víctimas perfectas ni heroínas. Desde el punto de vista del feminismo no creo que nos haga ningún favor. Creo que la reivindicación de la igualdad y la libertad hay que hacerla sin idealización. Esas mujeres fueron víctimas, pero también subordinadas. Cuando analizamos la historia, nos empeñamos en empatizar con la víctima, pero muchas veces no nos preguntamos si en esa época no seríamos quienes denunciaban, es decir, quienes estaban al otro lado. La cuestión es más compleja y menos dicotómica.

**En la mitología vasca también está ahora la bruja...**
La bruja se ha convertido en un personaje mitológico, pero no ha existido en la mitología vasca. Si analizamos a las brujas como sujetos históricos, lo que aparece en los tratados es una mujer malvada que tenía relación con el diablo y que, junto con otras brujas, hacía el mal en la comunidad. Eso no ha existido. Pero las que hemos considerado 'brujas' no eran mujeres extraordinarias, libres, con gran sabiduría y que por eso fueron perseguidas. Muchas de ellas eran mujeres normales, ya que, eso sí, se había dado la mayor ola de violencia contra las mujeres. Fue el mayor feminicidio de la historia.



## “Gure erronka da naturaltasunez gure dantzarekiko hizkuntza berreskuratzea”

**Patxi Laborda Larrea**
Dantzaria eta koreografoa | Danzari y coreógrafo

*Patxi Laborda Larrea dantzaria eta koreografoa Artzibarren egon zen udan, dantzen inguruko hitzaldia eta tailerrak ematen. Dantza tradizionalaren sustatzailea da eta dantzen bitartez, modu errazean dantzatzen ikasten eta edonorendako ereduak bilatzen saiatu zen.*

**'Gureak ote? Betikoak omen?' izenburupean eman zenuen hitzaldia. Zeren inguruan aritu zineten?**
Euskal dantzatzat ditugun hainbat melodia entzun genituen, abiapuntu moduan. Bertan ikusi genuen hain gureak sentitzen ditugun melodia horiek beste leku batzuetan ere daudela eta haienak sentitzen dutela ere. Hortaz, ulertu behar dugu tradizioaren munduan jabetza oso erlatiboa dela.

Sorkuntzari izugarrizko garrantzia ematen diogu, baina jakin behar dugu sorkuntza beti egon dela eta askotan sortzeko bai kontziente zein inkontzienteki beste batzuei kopiatu diegula; hau da, gurera moldatu dugula. Beraz, tradizioa iraganeko kontu bat bezala ulertzea ez da zuzena, gizartea garatzen den heinean dantza garatzen da. Gure erronka orain da naturaltasunez gure dantzarekiko hizkuntza berreskuratzea.

**Dantza ereduari buelta ematea?**
Bereiztu behar da oso ongi zer den eszenatokia eta zer den plaza. Abestearekin berdina gertatzen da: kantatzea historia naturala izan beharko litzateke baina guztiak ezin gara opera abeslariak izan.

Dantza taldeek mantendu dutena eredu eta egitura itxi bat izan da. Dantzak irakatsi behar zituzten eta horretarako estandarizatu dituzte, baina, berez, dantza askoz libreagoa izan da beti. Jota bat dantzatzeko ez zegoen modu bakar bat. Gertatu dena da ereduak galdu direla eta bakan batzuk gelditu direla.

**Errazagoa izan behar da plazan dantzatzea?**
Kontua da nola sentitzen zaren eta zer sentitzen duzun dantzan egiten duzunean. Dantza lotuta dago musikarekin, musika jarraitzen duzun heinean ongi dago, dantzatzen ari zara. Beste kontu bat da kode batzuk daudela, eta herriko jendearekin kode batzuk konpartitzen direla. Horien

bitartez sortzen da nolabaiteko identitate bat dantzatzean. Ez da bakarrik bakoitzak bere kabuz egiten duena baizik eta amankomuneko kodeak erabiltzen direnean sortzen dena.

**Artzibarren zer nolako kode koreografikoak landu dira?**
Tailerretan horren inguruan aritu ginen: jendeak uler dezan arbasoek zer egiten zuten, baina ez horrenbeste errepikatu behar delako haiek egiten zutena, baizik eta ulertzeko beraien kodeak zeintzuk ziren eta horietako batzuk baliagarriak izan daitezkeelako gaur egun. Badaude erritmo batzuk oso gureak sentitzen ditugunak, arin-arinak kasu, eta kontradantzen kodea ere atera zen. Artzibarren oso hedatua dago Ingurutxoa. Momentu oso berezi bat bizi genuen eta Ingurutxo bat sortu genuen azken egunean. Kriston euri-zaparrada ari zen, argirik gabe gelditu ginen, musikarik gabe eta Jokin Campion Gaston txistuarekin hasi zen. Ordura arte egin ez zen ingurutxo bat inprobisatu genuen.

# “Nuestro reto es recuperar con naturalidad el lenguaje de nuestra danza”



Argazkia | Foto: Maitina Gutiérrez Cuenca

*El danzari y coreógrafo Patxi Laborda Larrea estuvo en Arce durante el verano impartiendo una charla y talleres sobre las danzas vascas. Es impulsor de la danza tradicional y a través de las danzas, intentó enseñar a bailar de forma sencilla y buscar modelos para todos los gustos. Además de bailar hubo ocasión de reflexionar sobre algunos de los mitos que giran en torno a las danzas vascas.*

**Impartiste la charla bajo el título ‘*¿Son nuestras? ¿Son de siempre?*’. ¿De qué hablasteis?**
Como punto de partida escuchamos algunas de las melodías que se consideran danzas vascas. Pudimos ver que esas melodías que sentimos como nuestras también están en otros sitios y que allí también las sienten como suyas. Por lo tanto, debemos entender que en el mundo de la tradición la propiedad es muy relativa.

Damos una gran importancia a la creación, pero tenemos que saber que la creación siempre ha existido y que muchas veces la hemos copiado a otros consciente e inconscientemente, es decir, que la hemos adaptado a nosotros. Por lo tanto, entender la tradición como una cosa del pasado no es correcto, a medida que la sociedad se desarrolla la danza también se desarrolla. Nuestro reto es ahora recuperar con naturalidad el lenguaje de nuestras danzas.

**¿Dar la vuelta al modelo de danza?**
Hay que diferenciar muy bien qué es el escenario y qué es la plaza. Con la canción ocurre lo mismo: cantar debería ser una historia natural pero no todos podemos ser cantantes de ópera.

Lo que han mantenido los grupos de danza ha sido un modelo y una estructura cerrada. Tenían que enseñar las danzas y para eso las han estandarizado, pero, de hecho, la danza siempre ha sido mucho más libre. No había una sola manera de bailar una jota. Lo que ha pasado es que se han perdido los modelos y sólo quedan algunos pocos.

**¿Bailar en la plaza tiene que ser más sencillo?**
La cuestión es cómo te sientes y qué sientes cuando bailas. La danza está ligada a la música, a medida que sigues la música está bien, estás bailando. Otra cosa es que hay unos códigos que se comparten con la gente del pueblo. A través de ellos surge una cierta identidad al bailar. No es sólo lo que hace cada uno por su cuenta sino lo que se produce cuando se utilizan códigos comunes.

**¿Qué códigos coreográficos se han trabajado en Arce?**
En los talleres hablamos de ello: para que la gente entienda lo que hacían sus antepasados, pero no tanto porque haya que repetir lo que ellos hacían, sino para entender cuáles eran sus códigos y que algunos de ellos pueden ser útiles en la actualidad. Hay unos ritmos que sentimos muy nuestros, como el arin-arin, y también salió el código de contradanzas. El Ingurutxo está muy extendido en el valle de Arce. El último día creamos un ingurutxo. Ese día llovía a cántaros, nos quedamos sin luz, sin música, y Jokin Campion Gaston tocó el txistu. Improvisamos un ingurutxo que no se había hecho hasta entonces.




# 2025eko maiatzaren 15etik 25era izanen da Euskaraldiaren IV. Edizioa

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz eta 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.

Euskaraldiaren helburu nagusia hizkuntza-ohituren inertziak astindu eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea da, eta, horrez gain, entitateek ere euskaraz bizitzeko aukerak eta neurriak hartzea sustatu nahi da. Euskaraldiak, modu kolektibo eta sozial batean, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzen du, euskaraz bizitzea posible egingo duten neurriak eta espazioak sortuz. Hartara, norbanakoek parte hartzeko Ahobizi edo Belarriprest rolak hartuko dituzte.

**Zer da Ahobizi edo Belarriprest izatea?**

## AHO**BIZI**

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut.

## BELARRI**PREST**

Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

Norbanakoek izena emateko epea martxoan zabalduko da eta eskualdean hainbat jarduera antolatuko dira Euskaraldia girotzeko. Horren guztiaren informazioa sare sozialen bidez eta Udalaren web orriaren bidez zabalduko dugu. Eskualdean Euskaraldia antolatzeko talde bat osatuko da eta horretan aritzeko prest dagoen oro Euskara Zerbitzuarekin edo AEK-ko euskaltegiarekin jar daiteke harremanetan:

# La IV Edición de Euskaraldia tendrá lugar del 15 al 25 de mayo de 2025

Euskaraldia es un movimiento social para cambiar los hábitos lingüísticos de los hablantes que entienden el euskera. El movimiento quiere activar las prácticas lingüísticas de la ciudadanía y aumentar el uso del euskera, priorizando el euskera en las relaciones cotidianas y a través de una práctica social de 11 días.

El objetivo principal de Euskaraldia es modificar los hábitos lingüísticos y dar pasos para aumentar el uso del euskera, así como promover que las entidades también adopten medidas para utilizar más el euskera. Euskaraldia permite, de forma colectiva y social, activar y colaborar en la actividad cultural vasca local, creando medidas y espacios que hagan posible vivir en euskera. Las personas participantes adoptarán el rol de Ahobizi o Belarriprest.

**¿Qué significa ser Ahobizi o Belarriprest?**

## AHO**BIZI**

Hablo siempre en euskera con todas las personas que lo entienden. Cuando no sé si la otra persona sabe euskera también me dirijo a ella en euskera; si sabe, seguimos la conversación en euskera.

## BELARRI**PREST**

Decido cuándo y con quién hablo en euskera. Quizás no hable siempre en euskera con quienes lo entienden, pero quiero que las personas euskaldunes me hablen en euskera y eso es lo que les pido de manera explícita.

El plazo de inscripción se abrirá en marzo y en nuestra zona se organizarán actividades para animar la iniciativa. Se informará a través de las redes sociales y la página web del ayuntamiento. En la zona se formará un grupo para organizar las actividades de Euskaraldia. Toda persona interesada en participar puede ponerse en contacto con el Servicio de Euskera o el Euskaltegi AEK:

**EUSKARA ZERBITZUA: 948 79 04 05 | 672 08 30 20 – *euskara@burguete.es***

**AEK: 948 764 087 | 607 642 078 - *garralda@aek.eus***



# Villanueva de Arce, Hiriberri-Artzibar

MIKEL BELASKO

***Mikel Belasko**ren kolaborazioarekin, Artzibarko herrien izenei buruzko atal berri bat irekiko dugu. Itxuraz, izen erraz batekin hasiko gara, baina aukeratutako toki izenak lehen irakurketa batean ihes egiten diguten xehetasunak biltzen ditu.*

*Hiriberri-Artzibar, Villanueva de Arce* gaztelaniaz, ez dirudi eztabaidatzeko aukera ematen digun toponimo bat denik, eta, hala ere, ikusiko dugu, batetik, ibarraren historiari begiratzeko aukera ematen digula, eta, bestetik, erakutsiko digula nola hitzek, forma aldatu gabe, bilakaera handia izan dezaketela eta mendeak igaro ahala jatorrizko esanahitik franko aldentzen ahal direla.

Azken hori gertatzen da *villa* (gaztelaniaz) eta *hiri* (euskaraz) hitzekin. Gaur egun, gaztelaniazko villa hitza, RAEk zehazten duen bezala, *"herrixketatik bereizteko pribilegio batzuk dituen hiribilduekin"* identifikatzen dugu. Bilboko edo Madrilgo hiribildu (*villa*) ospetsuek, adibidez, sendotasuna ematen diote ideia horri. Hala ere, Erdi Aroko Nafarroan, *villa* jendea bizi zen edozein guneren izen generikoa besterik ez zen, leku horretan etxe pare bat bakarrik izan edo tamaina handiko herrigune bat izan. Eta esanahi umil horrekin, XXI. mendeko euskaraz harrigarria gertatu arren, *hiri* hitza erabiltzen zen euskaraz. Hau da garai hartako hiriak oraingo herriak dira, eta gaurko hiriak orduko ziudadeak ziren. Beste era batera esanda, duela mila urte *Hiriberri* eta *Villanueva* izenez bataiatu zena gure euskararekin eta XXI. mendeko gaztelaniarekin *Herriberri* euskaraz eta *Pueblonuevo* gaztelaniaz izanen ziren. Gure herriaren jatorri apala aldarrikatzeko unea da, laborariak baitziren gure arbaso haiek.

Bestalde, gaur uste dugu *Hiriberri* izenari ibarraren deitura ezarri behar zaiola (Hiriberri-Artzibar) Nafarroako beste Hiriberrietatik bereizteko beharragatik: Hiriberri-Longidakoa, Aezkoakoa, Arakilgoa... Baina Erdi Aroan ere zehaztasun hori beharrezkoa izan zen, Artzibar berean bi *Hiriberri* bazeudelako. Egungoari *Iriverri d 'Arrieta* (1274) edo *Irriverri prope Arrietam* (1275) eta *Yriuerri Vallis d' Arci* (1274) deitu zitzaion. Bigarren *Iriberri* hura Artozkiko Sarasun izeneko lekuan zegoen, baina hutsik geratu zen. Hori gutxi balitz, interes historiko eta linguistiko handiko beste gune batek *Iriberritx* izena du Nagoren. Gainera, Saraguetan, *Encinar de Irizar* dugu, aurrien aztarnekin. Izen horrek , ibarreko kultur elkartearen izenera hurbiltzen gaitu: *Urizar*. Izen iradokitzailea, bai, baina Artzibarren *hiri* edo *uri* hitzen bidez azaldu ezin dena. *Urizar* izenaren jatorria eta etimologia ibarreko artxiboetan bilatu beharko dugu noizbait.

Gure izenen azterketa hasi egiten da, bai, baina haien ikerketa beti dago irekita datu eta informazio berrietara. Espero dezagun, halaber, gaur irekiko den atal honek ibilbide luzea izanen duela aldizkarian.

---

*Iniciamos esta sección en colaboración con **Mikel Belasko** dedicada a ocuparse de los nombres de las localidades del valle de Arce, con una denominación aparentemente sencilla, pero que encierra detalles que se nos escapan en una primera lectura.*

*Villanueva de Arce, Artzibar-Hiriberri* en euskera, no parece que sea un topónimo que nos ofrezca ocasión de debatir y, sin embargo, veremos que nos permite asomarnos a la historia del valle y a cómo las palabras, sin cambiar su forma, pueden evolucionar y alejarse de su significado original con el paso de los siglos.

Esto último es lo que ocurre con las palabras *villa* en castellano e *hiri* en euskera. En la actualidad la palabra villa la identificamos, como precisa la RAE, con una "población que tiene algunos privilegios con que se distingue de las aldeas y lugares". Las ilustres villas de Bilbao o Madrid, por ejemplo, dan solidez a esta idea. No obstante, en la Navarra medieval, villa no era más que la denominación genérica de cualquier lugar habitado, bien tuviese este solo un par de casas o se tratase de un lugar de tamaño considerable. Y con ese significado, aunque hoy nos sorprenda, en euskera se utilizaba la voz que hoy se escribe como *hiri,* y que todo el mundo traduciríamos como ciudad. Dicho de otro modo, lo que hace mil años se bautizó como *Hiriberri* y *Villanueva* con nuestro euskera y castellano del siglo XXI habrían recibido los nombres de *Herriberri* en euskera, y *Pueblonuevo* en castellano. Es momento, pues, de reivindicar los orígenes humildes y labradores de nuestra localidad.

***Sigue leyendo el artículo escaneando el siguiente QR***

**ARTZIBARKO JAIAK FIESTAS DEL VALLE DE ARCE**

**MARTXOA | MARZO**
**21-23** > Lakabeko udaberriko jaiak
Fiestas de primavera de Lakabe

**MAIATZA | MAYO**
**11** > Artzibar-Orotz Beteluko erromeria Orregara
Romería de Arce-Oroz Betelu a Roncesvalles

# UDAKO JARDUERAK | ACTIVIDADES DE VERANO














**Artzibarko Udala | Ayuntamiento del Valle de Arce**

Ordutegia | Horario: 8:00 - 14:00 h.

Asteartero eta hilabeteko 1. ostegunean eta 3., 4. eta 5. ostiraletan.
Los martes y 1er jueves y 3º 4º y 5º viernes de mes.

San Julián kalea Z/G | Calle San Julián S/N
31438 Nagore
948 790 398 · *ayuntamiento@valledearce.com*
***www.valledearce.com***

**Batu Whatsappeko kanalera!**
**¡Únete al canal de Whatsapp!**

Urdirozko **Azokoop**-en inprimatua | Impreso en Urdiroz por **Azokoop**